

ETXENIKE ETA AEZKOAKO LEKUKOTASUN DIALEKTOLOGIKOA

1994.03.25

Nafarroako Diputazioa

Iñaki Camino

Jaun-Andre euskaltzainak,
Nafarroako kargudunak
eta gainerako entzule, lankide eta adiskideak.
Egunon!

Euskaltzaindiak hala eskaturik, Etxenike eta beraren ihardunaren ondoriozko Aezkoako lekukotasun dialektologikoez mintzatuko natzazue. Honekin batean, hizkuntzaren aldakortasunaren gaiaren inguruan Ipar Ameriketara eta Europan hondarreko hamarkadetan izan diren saio teoriko batzuez bi hitz esan nahi nituzke, euskal adibidetzat, XIX. mendeko Aezkoako kristau ikasbide baten lekukotasuna hona ekarriz.

Eta besterik gabe, alde zurretik eskerrak emanik, hasiko naiz.

1) Dialektologia diakronikoa hizkuntzalaritza orokorraren atal gisa eta honen mesedetan ulertu da gehien bat gurean. Gu ez gaude usaturik, ingelesak edo frantsesak bezala, edota Greziako aspaldiko hizkerez arduratzen direnak dauden moduan, Erdi Aroko nahiz are aspaldiagoko testuen arteko dialektologi alderaketak egitera, hizkuntz ezaugarri baten geografi eta kronologi hedadura zehatz-mehatz ikertzera —aldakuntza, berrikuntza edo dena delakoa—, testuetan oinarriturik, hizkeren arteko elkarreraginak nondik nora doazen aztertzea, testu zaharrak alderatuaz aldakuntza baten iturri edo fokoa zein geografi eremu izan datekeen iradokitzea —ia absolutuki agrafoa izan den geure Herriaren inguruko hainbat gertakari historiko ilunpean geratu baitira—, hitz jakin batek garai berezi batean lekuren batean estigma nola hartzen duen frogatzera e.a. Gurean honelako ohiturak ez dira hedatu, nagusiki, testu dei daitekeenik ez dagoelako arras berandu arte euskaraz idatzirik. Hainbat argitaratzaileen fruituak ugaltzen ari diren garai honetan ordea —nahiz XVII. edo XVIII. mendeko testu ezezagun guti agertzen den—, geroari esperantza apur batez begiratzeko aukera ematen zaigu.

Hitz, otoitz, olerki, esaldi, ezkon zin, bertso, gutun, kantu eta lekuzen zahar zenbaitez landa, nafarrera idatziaren aroa Beriain utergarrak

irekitzen du XVII. mendearen hasieran. Haren metodoaz gain, nola edo halako luzera duten testuen artean Elizalderen dotrina (1735) (1), 1729ko sermoi F. Ondarrak argitara emana (2), eta Munarriz, Muruzabal eta Larrañoañoako idazkiak ditugu 1745. urtea artean (3). Jakina, baita 1626ko Beriainen dotrina ere, nahiz hura ezagutzeko aukera egun hutsa izan. Larrekok Ollakarizketan lortu eta Aingeru Irigaray zenak gorde zuen dotrina haren *unicum*- a Javier eta Joxeanjel Irigaray adiskideek dute, eta Joseba Andoni Lakarra eta mintzatzen ari zaizuen honi utzi digute argitara eman dezagun. Aitor dizuegu luze gabeko gora-behera dela, eta aurki edonork eskueran izanen duela ia osorik kontserbatzen den aipaturikako dotrinaren edizio bat.

Nafarrera Zaharraz ari gara, muga nonbait finkatzekotan, Larramendi gogoan, 1745. urtea arte edo iristen denaz. Baina Nafarrera Zaharra gisa izendatzen dugun horrek biltzen dituen testuen artean ez dira dialektologikoki baten baten ustez balkanizaturik ageri den Nafarroa Garaiak biltzen dituen hizkera guztiak sartzen. Nafarroako bazter hizkera deitu direnez bezainbatean, aipatzekoa da, guk uste, ez dela beti esplizitatzen zergatik diren “bazterreko”: Nafarroa Garaiaaren administrazio egituraren ertzetan kokaturik daudelako, status aldetik euskal literaturan ia inolako itzalik gabekoak eta berankorrek direlako, ala kokaturik dauden euskalkietan beste euskalkien mugakide —esan nahi baita berak biltzen dituen euskalkiaren hegian— gertatzen direlako?

Nolanahi ere den, XIX. mendea arte itxaron beharra dago Nafarroako bazter hizkera batzuen berri izateko. Hauen artean, eta Pirinioetako hiru hizkeretara mugatuaz, Joanes Etxeberri Sarakoak erronkarieraren izakerari buruz esandakoek dakarkigute lekukotasun ia bakarra. Dialektologia historikorako garrantzi handikoa da Florencio Idoatek 1975.ean argitara eman Burgiko XVI. mende bukaerako sorginkerari buruzko testua (4), bere laburrean ere. Antzinasunari dagokionez, aipatu behar den Zaraitzu ibarreko dotrina bat dugu ere, Benito Gil-ek 1727. ean Itzallen idatzitakoa (5). Dotrina hau sarri argitara emanen dugu Joseba Andoni Lakarrak eta biok 1745. urtea arteko Nafarrera Zaharreko testuekin osatu dugun bildumaren barrenean.

Badira XVIII. mendeko dotrina gehiago ere, esaterako, Erronkariko bat argitara eman du Ricardo Gómezek (*Memoriae* 1991), Zaraitzuko bat

(1) *FLV* 65, 1994, 41-65.

(2) *FLV* 38, 1981, 147-173.

(3) Jose M. Satrustegi, *Euskal testu zaharrak I*, Iruñea, 1987.

(4) *CEEN* 1975, 225-276 eta orain Ibon Sarasola, *Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*, *ASJU*-ren gehigarriak XI, Donostia, 1990, 239-240.

(5) González Echeagaray eta Arana Martijaren katalogoan (Euskaltzaindia, 1989), 110.a.

Jose M. Satrustegik (*Symbolae* 1985 eta *Euskal Testu Zaharrak I* 1987), eta bada 1794ko Aezkoako Abaurrepeako bat ere, sarri argitaratuko dena. Honezaz landa, kronologi zehaztasuna nahi izanez gero, ez dago ia beste ezer XIX. mendeko bigarren erdian Luis Luziano Bonaparte lanabes bila eta taxonomi helburuak gogoan, ekinari otsoa bezala lotzen zaion arte. Erdietsi zituen katiximen artean, data zehatza dutenak eta ez dutenak ageri dira.

2) Ezinezko gertatzen da Bruno Etxenikereren irudia printzearenetik berezte, honexek bulkatu baitzuen euskal testuen eta hainbat daturen biltzera eta testu batzuen itzulpenak egitera 1856ko abuztuaren 11-13 bitartean Baigorriin Etxauzen jauregian ezagutu zuenez geroztik.

Bruno Eugenio Maria Etxenike Garmendia, Urdazubin sortu zen, 1819. urteko uztailaren 9an, eta Iruñean hil, 1893ko martxoaren 14an; egoki dateke beraz haren heriotzearen mendeurrenaren inguruan hainbat berri ematea.

Aita Juan Bautista ere urdazubiarra zuen eta ama Maria Lorenza, beratarra. Badakigu *Asociación Euscara de Navarra* edo “Nafarroco Euscarazco Elcargu”ko kide zela eta Larresoron matematikak eta frantsesa ikasi zituela. Aitorensene zen eta bi bider ezkondu zen. Lehen aldian deitura Alegria zuen gasteiztar batekin, honekin seme-alaba bi izan zituela. Bigarren emaztearekin aldiz hiru seme. Lau seme haietarik bi militar izan ziren, eta enparauak bata eskribau eta mediku bestea. Alaba ezkongabea Elizondon hil zen. Bruno Etxenikereren ondoko senitartekoak oso ugaltu ziren eta nobleziarekin harreman handia izaten jarraitu zuten.

Etxenike Elizondon bizi izan zen luzaz, “Datuegaraya” edo “Datueña” izeneko jauregian, baina Gasteiz eta Araba kurritu beharra ere gertatu zitzaion: bera izan zen printzeak herrialde horretarako baliatu zuen bilatzaierik nagusiena. Ekonomi ahalbide handikoa zela dakigu, eta ehizarako grina zuena. Nafarroako eta Arabako oihanetan ibiltzera usaturik, Odon Apraizek kontatzen zuen behin Bonaparterekin mendian barrera zihola bidelapur bat atera zitzaie eta Etxenikek rau pistola atera ziola honi kapapetik. Bidelapurra ihesari eman zitzaion, eta orduan Etxenikek erretzeko pipa baizik etzen pistolatzakoa erakutsi zion printze euskalariari. Printzeak, ehizarako zuen grina ezaguturik, eskopeta bat eta bi pistola erregalatu zizkion Etxenikeri, honek ez baitzuen onartzen printzearen dirurik euskalgintzan egiten zizkion mesedean truke. Etxenikereren biloba baten etxean, printzeak eman urrezko ordulari bat ere gordetzen zen, eskaintza euskarazko bat eta guzti zuena.

Bruno Etxenike baztanerara egindako bost testuren itzulpenarengatik da idazle gisa aipatua; honatx testuak:

- 1) San Mateoren Ebanjelioa, Bonaparteren aginduz urte batzuk ge-roago berrehun eta laurogeita zortzi zuzenketa erantsi zizkiona;
- 2) Jonasen profezia;
- 3) Apokalipsia;
- 4) Salomonen Kantuen kantua, eta
- 5) Ruthen liburua.

Bonapartek bostak argitaratzeko asmoa izan bazuen ere, bi besterik ez ziren orduan argitaratu, 1857an Ebanjelioa eta 1862an Jonasen profezia. Pello Salaburuk bostak batera argitaratu zituen 1980.ean (6). Itzulpen hauetan kutsu literarioa sumatu du euskaltzain arizkundarrak, nahiz printzeak Etxenikeri itzulpenak egiteko ereduaz kolaboratzaileen artean jabetuena bera zela aitortzen zion. Itzulpen haietarako literatur kutsurik gabeko folk edo herri-hizkera garbia estimatzen zuen Bonapartek, era guztietako fonetismoak eta guzti. Zerabilen kaligrafia txukuna ere esker-tzen zion printzeak urdazubiarrari.

Horrezaz gain aipatzekoa da Bonapartek Hego Euskal Herriko eremu-etan barrena egindako lan ibilaldietan Etxenike laguntzaile izan zue-la, esaterako 1866ko neguan Nafarroako ekialdeko ibar zenbaitetara egin ibilaldian Claudio Otaegik eta Etxenikek lagundu zuten printzea. Gai-nera, euskarari buruzko datu dialektalen eta euskal testuen bilketan la-gundu zuen euskaltzale urdazubiarrak, esate baterako Sakanan eta Bu-rundan, Elizondotik Gasteiza oinez joan ohi baitzen eskopeta bizkarrean. Nafarroako berrogei bat testu eskuratu zizkion, eta eskualdeak kurrituaz, 1864. urtean euskararen hegoaldeko mugaren berri zehatzak eman ziz-kion printzeari, Nafarroari dagokionez. Asteteren dotrina herriko hizke-rara itzuliko zuten apezak eta Bonaparteren berriemate izanen ziren la-gunak ere bilatu zituen. Aurretik, Arabako datuak emana zen hari 1862. urteko gutunek erakusten digutenez.

Bonapartek Etxenikeri igorri gutunak interes handikoak dira Euskal Filologia nahiz Dialektologiarako. Halaz ere, ez dakigu non diren Etxe-nikek printzeari igorri zizkionak, normalena, horiek ere, Duvoisin, Uriarte edo Inchausperenak bezala, gorderik egotea litzatekeen arren. 1979ko *Euskera* aldizkarian Juan San Martinek aipatzen ditu gutun horiek (7), baina aipamen hori nahasketaren ondorioa besterik ez da, egiazki aipatu nahi direnak Bonapartek Etxenikeri igorriak baitira, 1910ko *RIEV*-en Ju-lio Urkixok argitara eman zituenak berak (8). Komeni litzateke hauts eta

(6) *Baztango euskalkiaz (I)*, Deustuko Unibertsitateko argitarazioak, Bilbo.

(7) "Bruno Etxenike (1819-1893)", 561-568.

(8) "Cartas escritas por el príncipe L. L. Bonaparte a algunos de sus colaboradores", 233-297.

zoko zenbait harrotzea ea aipatu gutunok —Etxenikek Bonaparteri igorriak— nonbait agertzen diren.

3) Etxenikek printzearentzat erdietsitako katiximen itzulpenetan Javier Loperena Garraldako apaizak 1862tik aurrera itzuliak garrantzi berezia du —González Echegaray eta Arana Martijaren katalogoan 132. eskuizkribua—. Bonapartek biltzen duen aezkerazko lehen testua hauxe da. Loperena honi egotzen zaio Eguesibarko Elkanoko hizkerara itzulitako San Mateoren Ebanjelioa —González Echegaray eta Arana Martijaren katalogoan 49. eskuizkribua—, baina gauzak ilunsko daude gure ustez honi dagokionez. Bi testuetako grafia erkatu beharko litzateke eta Loperenaren gainean berri gehiago bildu, Elkanorekin zer lotura zukeen ikusteko, non eta ez dagokion Elkanoko testuan lapitzaz ageri den “par Loperena” hori beste Loperena bati.

San Mateoren Ebanjelioaren gaia ukitu dugunez, aipa dezagun, kontrakoa dioenik dagoen arren, ez dagoela Bonaparteren garaiko aezkerazko San Mateoren ebanjeliorik, soilik Erronkarikoa —Bidankozeko Hualderena— eta Zaraitzukoa —Eiaurrietako Samperrena— daudela (9). Aezkeraz idatzi San Mateoren ebanjelioa modernoa da biziki, Agoitzeko seme den Josu Cabodevillak 1991n argitara eman eta moldatua (*Aetzen uskara* bilduman hain zuzen).

Gai hau bazterrera utzirik, eman ditzagun orain Loperenari buruzko biografia datu batzuk.

Ez genekien orain arte Javier Loperena Orbaizetako seme zenik. Herriko sarreran dagoen “Arlakoa” edota “Arriola” izeneko etxean sorturik, aitetamak ere orbaiztarrak zituen. Joaquín Javier Gregorio Loperena Iturralde 1796ko maiatzaren 12an sortu zen eta Garraldan hil zen 1867ko abenduaren 12an 72 urterekin.

Gatozen ordea berak idatzi zuen katiximara. Aipatu katixima honen originala baino lehen —Loperenak bere eskuz izkiriatu kristau ikasbidea baino lehen—, Etxenikek orijinal honetatik egindako kopia txukuna iritsi zitzaion printzeari 1865eko urtarrilaren 24an, eta orijinala berriz otsailaren 9an. Bonaparteren lanen katalogoan, lehen ere idatzirik gaude honetaz (10), 132.a da orijinala eta Etxenikek egindako kopia berriz 127.a, nahiz “dialecto aezcoano” gisa ageri den eta ez Etxenikeren kopia gisa. Dena den letran hautematen da bi idazle desberdin direla. Etxenikek egindako kopiatik Loperenaren eskutik ateratako orijinalera aldaketa ba-

(9) González Echegaray eta Arana Martijaren katalogoan 261.a eta 103.a hain zuzen ere.

(10) Iñaki Camino, “Argitasun batzuk Aezkoako dotrinei buruz”, *ASJU* XXIII-3, 1989, 801-807.

tzuk daude, bereziki txistukari bizkaralbeolareen sailean, afrikatuak frikarietarik berezten baitira. Horrezaz landa Etxenikek grafiaren bati dagokion hotsarekin arazoren bat ere baduela ikus daiteke.

Jose M. Satrustegik oraintsu argitara eman Almirantearena aetzaren dotrina dakarren lanean (11), aipatu bi testuok —Loperenaren orijinala eta Etxenikek honetatik egin kopia— nahasi dira. Zeinahi testuren gainean juzkuak egin baino lehen, beraren zatiak ongi identifikatzea —letra, tinta, egiletasun kontuak e.a.— baitezpadakoa da. Satrustegik Loperenaren orijinala beharrean honen fotokopia baliatu baitu, ez bide du fotokopian, Loperenaren orijinallean Etxenikek egin zuzenketen kolore horixka hauteman. Zuzenketok adizkien laburdurari nahiz grafiaren arloari dagozkio, batez ere ixaren hotsa adierazten duten <s> bikoitzak <ch> bilakatuaz. Dotrinaren lehen orrian berean adierazten digu hori Etxenikek tinta marroiaz, eta dotrinaren barreneko aldean badira paper pusketa batzuk zuzenketen berri esplizitua frantsesez ematen dutenak. Txistukarien zuzenketa saio hau, dotrinaren erdi aldean bukatzen da, 45. orrialdetik aurrera berriz <s> bikoitzak baititugu. Dirudienez hobeki iritzi zion Etxenikek testu guztia buruan buru kopiatu eta moldatzeari, testu originalaren zuzenketa bukatzeari baino.

Aipatu Satrustegiren lanean esaten zaigu ere, 1865.ean eskuraturikako Loperenaren hau dela Bonapartek 1869an Londresen argitara eman zuen Asteteren ediziorako —Erronkariko, Zaraitzuko eta Aezkoako testuak biltzen dituen argitalpen hirukoitza hain zuzen (12)— Pedro Jose Minondo Garraldako maisuaren testuarekin batera aezkerari dagokion eredia osatzeko baliatu zuena. Datuek ez dute hori frogatzen ordea. Bonapartek berak dio 1869ko argitalpenaren izenburuan, Aezkoako eredia osatzeko, Pedro Jose Minondo Garraldako maisuaren jatorrizko testuaz gain, Martin Elizondo aribearren nahiz beste zenbait nekazari jendener laguntza baliatu duela, Loperena deusetarako aipatzen ez duela:

avec la coopération de Don Martin Elizondo d'Aribe... avec le concours de gens de la campagne, et après avoir rendu les trois versions aussi comparatives que possible.

Nekazari jende hori 1866ko ibilaldian galdezkatua nahiz 1869ko hasieran Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkaritik Donibane Lohizunera eramana izan daiteke.

(11) “Aezkoako Geronimo Almirantearenaren dotrina argitaragabea”, *ASJU* XXVII-2, 539-549.

(12) Ikus orain Iñaki Camino & Ricardo Gómez, “Bonaparteren argitaratzeko irizpideez: Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkariko dotrinak (I)”, *ASJU* XXVI-2, 1992-2, 453-581, eta Euskaltzaindia, *Opera Omnia Vasconice* III, Bilbo, 1991, 255-330.

1869ko ediziorako Bonapartek Minondoren nahiz Loperenaren tes-tuak oinarritzat hartu zituela esaten bada, hori baieztatu dezaketen frogak zein diren erakutsi beharra dago, eta garrantzizkoago dena, inolako za-lantzarik gabe aezkeraren barrenean kokatzen ditugun Orbarako bi dotri-nak, Ariakoa eta Abaurrepeakoa ez zirela erabili frogatu behar da ere.

Claudio Otaegik Manterolari 1870eko ekainaren 28an bidali zion txosten batean kontatzen denak aukera ematen digu pentsatzeko 1866ko ibilaldian erdietsi zituzkeela Bonaparte printzeak Orbarako, Abaurrepea-ko eta Ariako dotrinak. 1869ko ediziorako baliatu ahal izan zituen testu hauek, baina hori frogatu beharko litzateke. Ikus dezagun Otaegik ida-tzitakoa (13):

1866 garrengo urtean lagundu nion Principe Jaun oni berari, Aezkoa, Salazar, Ronkal, eta Nafarroko beste ibar askotara; aetako euskara ikas-tera: an egin ziran lan aundiak geroztik publikatuak izandu dira ba-tzuek bere kosturá. Bidaje artan bildu ziran liburu eta eskuizkribatu asko, eta utzi giñuzen enkargatuak beste lan asko.

Beren ezaugarriengatik, Orbarako biak, Ariakoa eta Abaurrepeako kristau ikasbidea 1866 baino lehenagokoak direla dakigu; nabarmena da ez direla printzearen ekinbideak idatzi eraziak. 1866ko neguan enkargatu haietako bat, Aezkoakoa, Garraldako Pedro Jose Minondo maisuaren dotrina da. Bonapartek Otaegiri 1866ko ekainaren 7ko gutun batean ai-patzen dio bildu duela. Garbi dago Minondoren testutik Londresen argi-tara eman zenera Bonapartek aldaketa handiak egin zituela, herri-for-meí ataria zabal ireki baitzien, eta Martin Elizondo aribearraren eta agian beste aetzen baten datuek zerikusia dukete honetan. Zaraitzuko eta Erronkariko kristau ikasbideekin bateratu nahiak ere sortu zituen alda-ketak.

4) Bonaparteren aginduz Etxenikek Aezkoan bildu dotrina baten kasu praktikoarekin hasi aurretik, eman ditzagun azken urteetan hizkun-tzalaritza orokorraren barrenean landu den ildo bati buruzko xehetasun batzuk.

* * *

Hizkuntzalaritza orokorra ez da gehiegi kezkatu mende honetako seigarren hamarkada ingurua arte aldakortasunaren arazoa ikuspegi teo-rikotik aztertzen, eta hizkuntza ente homogeneotzat hartu ohi du, datu

(13) Julio Urkixo liburutegian gordetzen da Otaegik Manterolari 1870eko ekainaren 28an bidali zion txosten baten kopia. Bertan zegamarrak, urtez urte 1863tik aurrera zerren-daturik, euskararen alde egin lanak azaltzen ditu "Nafarroco Euscarazco Elcargó"-ari eta d'Abbadieri aurkezteko.

enpirikoen arteko erlazio abstraktuen errealitateari begiak hertsiz; homogeneitatea ordea, Mathesius-ek zioenez, datuetan baino, metodologian egon ohi da.

Estrukturalismoa hizkuntzaren sisteman oinarritu zen, eta honi baitezpada homogeneitatea zegokiola juzkatzen zuen. Sistema abstraktoaz arduratzen ziren, abiaburu gisa hitzun indibiduala hartuaz —ondoren hizkuntzalaritza sortzailea hitzun idealaz arduratuko den gisan—, hizkuntzaren baitako aldakortasunaz sobera kezkatu gabe. Heterogeneitatea teorikoki garrantzirik ez zuen zerbaitzat jotzen zen, estilistikaz edo dialektologiaz arduratzen zirenek hizkuntzalaritza periferikoa egin zezaten utzia zutela zirudiela. Ikusi besterik ez dago hizkuntzalaritza sortzaileaz arduratzen den *Linguistic Inquiry* bezalako aldizkari batek 1980tik aurrera dialektologiaz zein guti —deus ez hobeki esan— argitaratu duen.

Dialektalizazioa ordea, hizkuntz aldakortasunaren “variability” eta hizkuntz aldaketaren “change” arteko erlazio hertsia, ñabar eta konplexuen menpe dago. Denbora aldi zehatz bateko idiolekto baten analisi deskriptiboan bata bestearen ondoan edo gainean dauden sistemak ageri zaizkigu, batzuk denbora aldi baten bukaerara hurbiltzen direnak, besteak hasten ari direnak. Hiztunen gaitasuna deskribatzean, beren gramatika barreneratuaren irudikatzea dakarten formulazioek, hitzunek egokitasunez eta behar den unean darabiltzaten aldaki eta desberdintasun guztiak erakutsi behar dituzte.

Halako simetria bat gertatzen da, komunitate batean denboran zehar gertatzen den dialektoen trantsizioaren, eta eremu batean zehar gertatzen den dialektoen arteko trantsizio geografikoaren artean; kasu bakoitzean, sistema diferentea duten hitzunen arteko kontaktua dago. Idiolekto homogeen indibidual edo monolektala gainditu beharra dago transferentzia mekanismo ulergarriago batera iristeko. Badira hitzunik beren dialektoa edo hizkera eta beste bat ere aktiboki kontrolatzen dutenak, nahiz gehiago diren aldameneko hizkera edo dialektoa pasiboki ezagutzen dutenak. Bloomfield-ek (1933) zioenez (14), hitzun oro bere hizkuntza ohiturei leialki loturik ari daiteke bizitzan zehar, baina baita bere interlokutorenei etengabe egokitzen ere. Azken kasu honetan, ordura arte zerabiltzan hizkuntz forma batzuk utzi egiten ditu hitzunik, beste berri batzuk bereganatzen ditu, eta ondorioz, hizkuntz forma batzuen erabileraren maiztasuna aldatzen du, forma zaharrak osoki alde batera utzi gabe edota berarentzat berria den formaren bat osoki onartu gabe.

(14) *Language*, New York: Holt, 327-328. or.

Antzera dihardute Fries eta Pike-k ere (1949) (15):

In the process of change from one phonemic system to a different phonemic system of the same language, there may be a time during which parts of the two systems exist simultaneously and in conflict within the speech of single individuals... It is impossible to give a purely synchronic description of a complex mixed system, at one point of time, which shows the pertinent facts of that system; direction of change is a pertinent characteristic of the system and must also be known if one wishes to have a complete description of the language as it is structurally constituted

Estatu Batuetan Labov-en lanek eratu ereduaren barrenean ordea —bereziki hirietako aldakortasun linguistikoa ukitzen zuten lanetan, eza-gunena New York hiriarri buruz 1966an egin dela (16)—, hizkuntzaren baitako heterogeneitatea eta aldakortasuna, periferikoa ez, hizkuntzalaritzaren erdiguneko gai gisa ageri zaigu. Estatu Batuetan Labov-ek eta egin lanek —klasiko bihurtu da 1968ko Weinreich, Labov eta Herzog-en lana (17)— erakusten dute erregulartasuna eta egitura ez daudela etsaiturik heterogeneitatearekin, badirela aldakortasun eredu batzuk hala hiztun indibidualarengan nola —eta hau garrantzi handikoa da— hiztunen komunitate osoan. Komunitate horretan aldakortasuna gertatzen da, egunik egun eta hiztunik hiztun alda daitezkeen joerekin. Paradigma berrian aldakortasun sistematikoa txertatzen zaie hizkuntzaren teoriari eta deskribapenari, gramatikaren erregela kontzeptua “erregela aldakor” edo “variable rule” aldaerarekin aberasturik, ordura arteko “optional rule” kontzeptua gaindituz, honek ez baitzuen aldakortasun sistematikoa aintzat hartzen, ezta kontestu fonologiko, morfologiko edo sintaktiko zehatz batek nahiz adinak, gizarte-mailak, estiloak edo sexuak erregela baten operatibitateko probabilitate eta maiztasunean duten zerikusia kobariazio neurketa sistemen bidez aztertzen. Erregela kategorikoak ditugu beste aldean, eremu batean beti —edo sekula ez— aplikatzen direnak.

Bestalde, teoria honetan, ardatz sinkronikoa eta diakronikoa gogoan hartzen dira. Eredua honen aldaki bilakatuagoa Cedergren eta Sankoff-ena (1974) dugu (18). Erregela aldakorren alorrean —Cedergren eta San-

(15) “Co-existent Phonemic Systems” *Language* 25, 29-50, 41-42. or.

(16) *The Social Stratification of English in New York City*, Washington, D. C.: Center for Applied Linguistics.

(17) “Empirical foundations for a theory of language change” in *Directions for historical linguistics*, ed. by W. P. Lehmann and Y. Malkiel, 95-195, Austin, Texas: University of Texas Press.

(18) “Variable rules: performance as a statistical reflection of competence”, *Language* 50, 333-355.

koff-en lanari ukituak eginez— Kay eta McDaniel-en lana (1979) (19) eta hauei Sankoff eta Labov-ek eman erantzuna (1979) (20) aipa daitezke.

“Kuantitatibo” gisa izendatu den eredu honekin batera hizkuntza kreolaideen zenbait azterketatan landu den “eredu dinamiko” deritzana dago aipatu beharra; jakina denez, elkar hizketa errealak *in vivo* aztertuz jabetu daiteke ikerlea hobekien hizkuntz aldaketaz, konbergentzia prozesuaren izakera soziolinguistikoa horrela atzematen baita aiseenik; Bickerton-en (1971-75) (21) eta Bailey-ren lanetan (1973) (22) ageri zaigun eredu honen arabera, aldakortasun hori ez da gertatzeaz dagoen hizkuntz aldaketaren aldi bat baizik, aurrekoen ustez hizkuntza komunitatearen berezko ezaugarritzat jotzen zela. Aurrekoen ustez, hizkuntz aldaketa orok aldakortasuna eta heterogeneitatea inplikatzan dituen arren, hizkuntzaren egitura ageri den aldakortasunak eta heterogeneitateak ez du beti hizkuntz aldaketa inplikatzan. Hizkuntz aldaketaren azterketarako zazpi hatsarri nagusi eman zituzten Weinreich, Labov eta Herzog-ek (1968).

Aurkeztu berri dugun eredu dinamikoan analisi ororen funtsezko dimentsioa denbora da. Aurrekoen erregela aldakorrik ez darabilte beste hauek. Hizkuntz aldakortasunaren eta hizkuntz aldaketaren gorputz teoriko berria hartu zuten ideia hauek Bailey-ren lanaren bidez (1973). Honen eremuan Schmidt-en (1872) uhinen teoriaren berritzea ageri zaigu, isoglosen konbinazio desberdinak dituzten geografi eremuetan antzekotasun maila desberdineko dialektoak eta hizkuntzak ditugula.

Teoriaren arabera, indibiduo bakar batek lekto desberdinak errepresenta ditzake sare panlektalaren barranean aldi desberdinetan. Implikazionaltasunez erlazonatutako hainbat lekto dira; badago lektoaren gramatika bat erregela inplikatzaileak dituen, baina baita *continuum*-eko hitun sailena ere. Lekto horiek sinkronikoki eta historikoki erlazonaturik daude. Aldaketaren uhinak, denboran zehar, espazioan zehar edo gizartean zehar hedatzen dira, eta adina, sexua edo gizarte-maila bezalako harresiek geldieraziak gerta daitezke, aldakortasuna interpersonala nahiz intrapersonala dela.

Aipatzekoa da Bailey-ren ereduaren barranean, haurren hizkuntza jabekuntzako prozesua —gramatikaren jabekuntzari dagozkion eredu eta ezaugarriak— garrantzi handikoa dela. Beste alde, Bailey-ren eremuan S letra larriaren irudia duen bihurtzea baliatzen da populazio batean zehar gertatzen den hizkuntz aldaketa aurkezteko, non guti diren denbora

(19) “On the logic of variable rules”, *Language in Society* 8, 151-187.

(20) “On the uses of variable rules”, *Language in Society* 8, 189-222.

(21) “Inherent variability and variable rules”, *Foundations of Language* 7, 1971, eta baita *The Dynamics of a Creole System*, London: Cambridge University Press, 1975.

(22) *Variation and Linguistic Theory*, Arlington, Virginia: Center for applied Linguistics.

aldi jakin batean aldaki zehatz bataren edo bestearen erabilpen garbia egin gabe, bi aldakiren erabilpen ertaineko portzentaia ematen duten hiztunak. Neurketa sistemaren arabera, aldaki baten erabilpen portzentaia baxua duten hiztunak ezaugarri berria hartzen ari dira, eta portzentaia gora dutenak jadanik ezaugarri berria bilduak dira. Izan dira kritikak Bickerton eta Bailey-ren eredurako. Fasold-ek (1973) (23), erregela aldakor “geldituak”, “stagnant” direlakoak, aipatzen ditu, urteetan zehar ezaugarri batetik besterako aldaketa aktiboa gertatu ondoan, erregela aurrerakuntzan dagoen seinale garbirik ez dagoen kasuetan. Horrezaz gain, dialekto taldeez egin zuten ukazioaren ondorioz Macauley-ren kritikak etorri ziren (1978) (24). Ikus kritika gehiagoren berri nahi izatekotan, Petyt 1980 [1986] (25).

Hizkuntz aldakortasunaren ildoan eta dialekto urbanoen erakutsia gogoan izanik, Chambers eta Trudgill-en 1980. urteko lana gogora eraztekoa da (26). Hizkuntz ezaugarrien eta berrikuntzen hedaduran parte hartzen duten eredu geografikoez kezkatutik, sare espazialen ulermen sakonago bati eta hizkuntz aldakortasunari buruzko hipotesien alorra ukitzen dute. “Geolinguistika” izendatzen dutenaren barrenean, ohiko geografia dialektala eta dialektologia urbanoaz gain, giza geografia —geografoen berrikuntza teorikoetan gizarte jarrerak eta komunitate arteko sareak aztertzeke eredu dinamikoak garatu dira— sartzen dute. Azterketa urbanoetan garatutako lanabesak eskualdeetako dialektologian baliatzeko joera ere erakusten dute.

Testu zaharren gure gaiari gehien lotzen zaion iharduna Dees-en lanetan aurki dezakegu (1988) (27). Frantses zaharrari buruz hainbat idazki argitaratu duen jaun honen lanetan metodologia zehatza aurki daiteke hizkera edo dialekto bateko garai desberdinetako testu zaharrak eskueran eduki ditzakeenarentzat.

Egun erabat onartzen da dialekto baten edo testu baten barreneko aldakortasuna ere hizkuntzalaritza orokorraren teoriaren atal bat gehiago dela, eta behatzaile modernoak prest egon behar du erabateko erregula-

(23) “The concept of ‘earlier-later’; more or less correct”, in C.-J. N. Bailey & R. W. Shuy (eds.): *New Ways of Analysing Variation in English*, Washington: Georgetown University Press.

(24) “Variation and consistency in Glaswegian English”, in P. J. Trudgill (ed.): *Sociolinguistics Patterns in British English*, London: Arnold.

(25) “Other recent approaches”, in Harold B. Allen & Michel D. Linn (eds.), *Dialect and language variation*, Academic Press, Inc., San Diego, California, 35-60.

(26) *Dialectology*, Cambridge University Press.

(27) “Propositions for the study of Old French and its dialects”, in Jacek Fisiak (ed.), *Historical Dialectology. Regional and Social*, Mouton de Gruyter, Berlin-New York-Amsterdam, 139-148.

ritatez aplikatuak diren gramatika erregelen bidez deskribatua izan ez daitekeen edozein hizkuntz jokabide erabat zilegi dela aitortzeko.

Estrategia gisa hizkuntz fenomeno edo ezaugarri batek testuan duen agerpen maiztasuna neurtzea proposatzen du Dees-ek bere lanean, eta ahal dela aspaldiagoko eta ondorengo testuetako agerpen maiztasunarekin alderatzea, aldakuntza edo berrikuntzaren norabideaz eta garaiaz juzku zehatz ez inpresionistak egin ahal izateko. Honela, testu batean forma baten aldaki bat –kontestu fonologiko bateko ezaugarri bat, item lexiko bat, forma morfologiko bat...– %0-%10 eta %90-%100 bitarteko agerpen maiztasunaz ageri denean, erregularitate maila handia dago ezaugarri horri dagokionez, testuan ezaugarri hori ia erabateko homogeneitatez ageri baita. Ordea, bi formen arteko txandaketa mailarik handiena, forma horien agerpen maiztasuna %40-%60 bitartekoa denean gertatzen da. Hizkuntz aldaketek eta beren garapenaren datazio zehatza laguntzen du elkarren lehian dauden formen maiztasun erlatiboa denboran zehar neurtzeak. Eremu anitzetako antzinako eta ondorengo testu dialektal data zehatzekoak izatera, hizkuntz aldaketa baten “temporal and spatial contiguity of the cause and effect” deritzanaz juzkuak egitea aise hobeki egiten da.

5) Orain artean ukitu dugun hizkuntz aldakortasunaren harian, bukatzeko, dialektologia historikoa egiteko abiaburu izan daitekeen hizkuntz formen agerpen idatzien eta ikerketa modernoetan bildu formen arteko alderaketan sakonki sartuko ez bagara ere, XIX. mendeko Loperenaren dotrina ageri diren dimorfismo batzuk eta egungo aezkera modernoan ageri diren beste batzuk aurkeztu nahi ditugu hondarreko atal honetan. Hori baino lehen, interpretazioetan sortzen diren arazoez bi hitz aipatu beharrak gara.

Modernoegiak dira aezkeraz idatzitako testuak beren bitarteko alderaketatik ondorio erakargarriak atera ahal izateko. Guk dakigula, data jakina duen kristau ikasbiderik zaharrena Abaurrepeako 1794koa da, edo data hori ageri du behintzat. Gainerako data eta idazle jakineko dotrina guztiak XIX. mendekoak dira, edo XIX. mendeko dataren bat ageri da egile ezagunik ez duten kristau ikasbide horietan. Testu aspaldiagokoak genituzke gogokoago aukeran.

Lehenagoko hizkuntz egoera baten berreraiketa garai bateko testu idatzien bidez osatzen saiatzean, hutsak egiteko arriskua zenbaterainokoa den neurtzea ez da aise. Gure informazioa partziala da: idazkiaren egileak hizkuntz jarrera aldakorra ager zezakeen, edo testuko hainbat eta hainbat forma hizketa arruntean benetan esistitzen ote ziren frogatzea ere ezina izanen zaigu behin baino gehiagotan; dokumentuek ez dute beti ahozko hizkera leialtasunez islatzen.

Egungo ahozko dialekto bat aspaldiagoko beraren testu batekin alderatzean ager daitezkeen bi arazo nagusi honakoak dira:

a) testu zaharretan ageri zaigun forma, hots edo egitura zenbait, ez da jada egungo hizkera mintzatuan ageri;

b) egungo hizkera mintzatuan erruz erabiltzen den eta beraren egitura fonikoagatik arkaismoa dirudien forma edo hitz bat ez da inolako testu zaharretan ageri. Eman dezagun testuen kronologiari dagokion adibide bat.

Zein interpretazio eman XIX. mendeko dotrina zaharretan <jan>, <jarri> bezalako formen agerpenari —baina <sequi> [šeki] ‘jaiki’, <sayac> [šayac] bezalakoak ondoan dituztela—, egungo aezkera mintzatuan herri guztietan [šan] eta [šarri] ahoskatzen baldin bada? Kultismotzat jo behar dira <jan> eta <jarri> horiek, ala pentsatu behar ote da txistukari frikari sabaiurrekoa belarizatzekeo prozesua hasi zela, eta gero berriz ere atzera egin zuela eta hitz horiek berriro txistukari frikari sabaiurrekoaz ebakitzen segitu zela?

Gaur egun, dialektologiaren arazo eta kezka nagusienetakoa —erabili beharreko metodologia sailkatzaileaz gain—, muga dialektal bat zer den galdezka segitzea da, eta honek betiko galderara garamatza: ba ote da dialektorik? Nabarmena da dialektoak badaudela. Kasurik ageriena, jauzi dialektal handia duten bi hizkera desberdinen neurketaren emaitzak eskaintzen digu. Metodologiagatik gainera, maiz, alderatzen diren bi atalak bi sistema desberdin direla aitortzen da *a priori*, konbergentzia eta berdintasun maila txikia ez izanik ere. Jauziak hain nabariak ez direnean eta hizkeren *continuum* egoera ñabarra gertatzean, dialektologiaren metodologiari buruzko hamaika galdera datorkigu gogora. Honela, Gumperz eta Wilson-en 1971ko lan ospetsutik segitzen denaren arabera (28), ez da beti aise izaten pidginizazio, kreolizazio eta bestelako hedadura prozesuen arteko mugak ezarri ahal izatea, beren arteko desberdintasuna gradualala baita. Ohartzen baldin bagara, testu zaharren gure gaian ere berdin gertatzen da: testu bat heterodialektala den —bi dialekto desberdin nahaska ageri direnean—, edota testu horretako dialektoan beste dialekto baten kutsua edo arrasto batzuk dauden juzkatzea, gradu kontua da, ez da klaseari edo generoari dagokion zerbait.

Orain artean aipatu dugun Loperenaren dotrina honi dagokionez, idazlea, idazlearen gurasoak, sorterrria, garaia, kristau ikasbidearen itzul-penerako egileari Bonapartek eman irizpideak e.a. ezagunak ditugu, eta

(28) “Convergence and creolization. A case from the Indo-Aryan/Dravidian Border in India”, in (Dell Hymes ed.), *Pidginization and creolization of languages*, Cambridge University Press, 151-167.

ez da guti, euskal testuen eremuan bestetara ere usaturik baikaude. Gure dotrinan gainera, ez dago kanpotikako beste hizkeraren baten eraginean pentsatzea justifika dezakeen ezaugarri dialektalik, esan daiteke aezkera garbian idatzia dagoela, eta hori baieztatzean intuizio modernoa darabilgula jabetzen garela aitortu behar dugu.

Dialektologia ez da soilik hizkuntza formek arealtasunean duten hedadura oinarritzen. Diakroniari ere kasu egin behar zaio, hedadura ez baita beti berdina izaten: isoglosa berriak sor daitezke, lehenagoko batzuk galdu edo lekuz mugitu...

* * *

Gatozen testura eta ikus ditzagun XIX. mendeko dotrina honek bere baitan biltzen duen aldakortasunaren atal batzuk:

Diptongoen sailean aldakortasuna nabarmena da: *gauren* (59)/ *gouren* (59)/ *neure* (14), *eure* (32); *eztauquenac* “ez daukanak” (26)/ *douquen* “daukan” (78); *zaudena* (1)/ *doude* (64); *deus* (72)/ *ezdausteic* (39)/ *dous* (72); *gou* “hau” (64)/ *gauces* (68). Baita honako beste hau ere: *oroyceco* (27)/ *oraiguiten* (62).

Ai/ei txandaketa ere, espero zitekeenez, gertatzen da: *guirelaic* (19)/ *guireleic* (32); *chey* “jai”, [Etxenikek <*ssey*>-tik zuzendua] (3)/ *ssayac* (70); *deitequenean* (84)/ *eztaiquena* (34).

Hiatoetan ere berdin: *vezalacuan* (45)/ *vezalacoan* (45).

Sinkopa ageri duten kasuak ageri ez dutenekin batera ditugu: *limboetra* (2)/ *limboetera* (5).

Kontsonanteen sailean berriz, hona hiru kasu. Bokal arteko *r* bakunaren erorketa ageri duten formak ageri ez dutenekin batera ageri dira: *testimonioic* (4)/ *peligroric* (6). Hitz hasierako *j*-ri dagokionez, *ssaveari* (72) adibidearen ondoan *jaun eta jave* (39, 58) dugu. Ozenen bustidurari dagokionez berriz, *gañeraco*-z gain (11, 65), *gaineraco* (29) eta *gainetic* (3) ditugu.

Izenaren morfologiaren barrenean hona beste hiru adibide. Lehenean edute genitiboa, lau forma ageri dituena: *ssavearen* (72)/ *lagunain* (4)/ *consejueina* (10)/ *soberbian contra* (9). Bigarrenik ablatiboaren forma pluralak: *esayetic* (1)/ *esayetaic* (24)/ *gaistoetatic* (20). Hirugarrenik lehen pertsonari dagozkion izenordainen formak: *neure* (14)/ *nere* (14)/ *enea* (60).

Hitzen formaz denaz bezainbatean hona bi adibide: *Yrugarrena* (3)/ *irugarrena* (19) eta *Laugarrena* (3)/ *Laugarrena* (5).

Adizkien formei dagokienez, hona lau adibide. Ahalekoetan *dezaque* (49)/ *ezpaitiro* (64, 76). “Zioten” formarako ere bi aldaki: *zecote* (43)/ *zacote* (45). “Daiteke” formak anitz aldaki du: *ezpaitateque* (87)/ *ezpaiteteque* (30)/ *deitequenean* (84)/ *dataque* (89). “Dizkidazu”-k berriz bi ditu: *diazquidazula* (14) eta *dazquidazula* (14).

Dotrinarekikoak utzi eta egungo aezkera modernoari dagozkion polimorfismo kasu batzuen berri emanen dugu orain, giza jokabideaz sareratto bat egin eta.

Gizarte arloa gogoan hartu behar du dialektologiak —hala sinkronikoak nola diakronikoak—, komunitatearen nahiz norbanakoaren hizkuntzan ageri diren hizkuntz aldaki batzuk gizartezko egokiera jakin batzuekin loturik egon baitaitezke. Komeni izaten da gainera, hizkuntz gertakari edo aldaki bati buruz gizarteak duen oharren maila neurtzea, usu argigarri gertatzen baita fenomenoaren nondik-norakoaz jabetzeko.

Giza espezieari dagozkion beste bi ezaugarri aipatu nahi ditugu oraino. Giza jokabidearekin loturikako guztian prediktabilitate eza nagusitzen da maiz, gudan eragiten duten faktoreak askotarikoak baitira. Hiztun guztiek ez dute hizkuntz ezaguera bera ezta gaitasun bera ere; hiztun batzuek besteek baino gehiago biajatu dute, bestelako formen ezagutzen honek dakarrenarekin; aldameneko komunitateko hiztunekiko jarrera ere ez da berdina komunitate barreneko kide guztien artean. Inkestagintzan oso gogoan eta arretaz hartu beharrak dira ñabardura hauek guztiak.

Hiztunen jokamolde desberdinei erreparatu behar zaie, ez baitute denek jarrera bera erakusten inkestalariarekiko; esaterako, ez da bat ere harritzekoa are inkestagileari ziria sartzen saiatzea ere, hiztuna ohartzen baita aldaki bat ezaugarri sozial gardena dela. Santandereko Carriedo ibarrean honakoa gertatu zitzaion Menéndez Pidal-i 1930.ean (29):

También fuera del Valle de Pas, lindando con él, la parte más meridional del Valle de Carriedo practica la inflexión metafónica... en Selaya mismo, las gentes más cultas, que eran las que me informaban, desconocían por completo la esencia de la inflexión, pues me aseguraban que en esos barrios apartados también se decían en femenino **cabrira*, **utra*... En las tres aldeas de Selaya, Bustantegua, Campillo y Pisueña, observamos durante el interrogatorio que los sujetos disimulaban a veces la inflexión, en las contestaciones a nuestras preguntas directas, sin embargo la usaban en la conversación entre ellos con toda intensidad *guápu*, *bisu* “beso” etc.

(29) *Pasiegos y vaqueiros. Dos cuestiones de geografía lingüística*, Universidad de Oviedo, 1954, 14-15. or.

Ildo berean, Menéndez Pidal-ek Asturiasko dialektologiari buruzko lan honetan dioskunez, Salas herriko La Espina eremuan, aurretik unaienak izandako pentze batzuetara nekazariak lekuz aldatzean, hitzun nekazariak saiatzzen ziren *mucher* “emazteki” forma utzi eta *muyer*-era pasatzen, bestea unaiena zela baitzeritzoten.

Bigarren ezaugarria gizakiok elkarri eragiteko —hizkuntz formak barne, honek konbergentzian duen eraginarekin— dugun berezko gaitasuna da. Honela, hizkuntz elkarreragina lagun bakarraren nahiz komunitatearen mailan gerta daiteke, eta hizkuntz aldaketak abiatu. Honen guztiaren ondorioetarik bat dimorfismoa edo polimorfismoa da, komunitate edo eremu batean hitz beraren edo forma baten bi aldaki desberdin edo bi baino gehiago izanik: bata bestea baino erabiliagoa, edota bertakoagoa, edo zaharragoa, edo emaztekiek bakarrik darabiltena, edo artzainek erabilia, edota bata eragin kanpotar zenbaitek ekarri berria... Schuchardt-ek, Brugmann-i segituz, aipatzen zuen forma baten hala ama nola alaba elkarren ondoan ager zitezkeela ez bakarrik dialekto berean, baita norbanako berarengan ere. Rodríguez-Castellano-k honako kasu bitxia aurkitu zuen Asturiasko hizkuntzan Belmonte kontzejuko Llamoso eremuan (30): aiton-amonek *ts*-rekin ahoskatzen zuten “otso” hitza: *tsobu*. Seme-alabek aldiz *ll*-rekin, *llobu*, eta bilobek berriz gaztelerazko eran *l*-rekin: *lobo*.

Itxuraz galtzen ari diren formei dagokionez argigarria da Frantziako hurrengo adibidea. 1903. urtean Friburgoko kantonamenduko Charmey-en Gauchat ikerlariak bildu zuenez, elkarrekin bizi ziren hiru belaunaldien baitan —zaharrak, helduak eta gazteak— aldaketa foniko bat gertatua eta kontsumatua zen. Ermann ikerlaria, ordea, egoera horrexi ohartu zitzaion 1929.ean mende laurden bat beranduago, eta 1903an gazte ziren zenbait oraino 1929an ahoskatze zaharraren ordezkari zirela baieztatu ahal izan zuen (31). Arestian aipatu dugun Asturiasko Llamoso herrian antzera gertatu zen 1910eko Menéndez Pidal-en bilketa eta 1953ko Rodríguez-Castellanorena alderatu zirenean *ts*-/*ll*- ezaugarriari dagokionez.

* * *

Ikus ditzagun orain Loperenak idatzi dotrinan ageri diren dimorfismoek bizirik jarraitzen dutela adierazten diguten aezkerazko adibide moderno batzuk.

Aezkoako Aria herrixkan 1991n egindako inkesta bateko datuak dira. Inkestotan, bertako gizonezko batek eman forma bikoitzak ageri dira: *áuria/éuria*, *naurónek/neurónek*, *náurri/néurri*, *niz/náiz*, *yárrri/xárrri*, *oilás-*

(30) Menéndez Pidal, op. cit, 25. or.

(31) Menéndez Pidal, op. cit, 26. or.

ko/oillásko, eitzúrres/aitzúrres. Den denak aezkeraren zer nolakoa definitzeko garrantzi betekoak. Herri bereko emazteki batek berriz, honakoak eman zizkigun: *áuli, áuri, dáuse, náurri, naurónek, xárrri, níz ...* Bestelako argibiderik ez bagenu *naiz* forma *niz* baino zaharragoztat jo beharko bagenu ere, intuizio modernoa erabiliz, badakigu gizonaekoaren *naiz* forma kutsatua dela, aezkeraren erregela batek *neiz* eskatuko lukeelako *naiz-en* orde; testu zahar guztietan beti *niz* agertzen da, eta Aezkoa guztian denek *niz* darabilte. Aribeko nahiz Auritzeko ferietan edota Donibaneko nahiz Heletakoetan ibiltzen ziren gizonaeko aetzak, eta leku horietan nagusiki *niz* entzuten zuten. Baina gainerako Nafarroan *naiz* da nagusi, eta gerra denboran nahiz bortuko lanetan *naiz-en* erabiltzaileekin aritu beharra gertatuko zitzaien gizonaeko ariatarrei naski. Herritik ia atera ez diren emaztekiek ez dute hizkera hibridorako hainbesteko joerarik. Gizonaekoaren *naiz-en* erabileran inkestalariaren presentzia erabakigarri gertatu ahal izan dela ere ez litzateke atzendu behar.

Baina *euri/auri* bezalako adibideetan ez dago hain erraza gizonaekoaren forma bikoitzaren jatorria zein den ebaztea. Argi dago *euri-k auri* eman duela eta berrikuntza dela. Arratialean eta Mungialdean ere ezauna da *eu* diptongoak *au* eman duela, eta Aezkoa, Burunda eta Sakanarako ere berdin idatzi ohi da. Ez da esan ordea, Estellerrian, Garesen, Iruñerrian eta Artzibarren ere gertatzen denik. Garaziko eta Zaraitzuko hizkeretan ez gertatzeak bere munta dialektologikoa du, beste hizkuntza berrikuntza sorta handi bat bezala, ezaugarri hau aezkeraz eta hegoaldeko goi nafarreraz ageri baitzaigu, aezkera behe nafarreratik aldentuz. Hegoaldeko goi nafarrera diogunean ez dugu ukatzen Mitxelena 1972an aipatu ekialdeko eta mendebaldeko goi nafarrera kontzeptuen balioa (32), baina orain darabilgun kasurako berdin da modu batean ala bestean aritu.

Hona aditzera eman nahi duguna: Ariako emaztekiak *auli, auri, dause, naurri, nauronek* erabiltzeak pentsarazten digu gizonaren *euri, neurri* e.a. herritik kanpo ikasi formak direla, *niz/naiz* aferan gertatzen zen bezala. Ordea gauzak zailtzen dira dotrina zaharretan ere bi formak ageri zaizkigula ohartzean. Esaterako Loperenarenean, *deus* eta *daus*, nahiz *neure* eta *gauren* ditugu. Pentsa daiteke beraz dimorfismo hau zaharra dela eta aldaki batek ez duela bestea erabat garaitu. Pentsa ote daiteke, testuen kronologia aintzat hartuz, ezaugarri honetan gizonaeko emaztekiek baino kontserbatzaileago gertatu dela? Ez jakin.

Honekin loturik *eutzi* zaharrago batetik heldu den *utzi* hitzaren kasua dugu. *Eu* > au diptongo aldaketaren berezitasuna duen Altsasuko hizkeran *autzi* da hitza. Fenomeno bera duen aezkeraz ere halako zer-

(32) "A note on Old Labourdin Accentuation", *ASJU* VI, 110-120, 113. or.

bait espero genuke. Aezkoako dotrina zahar gehienetan *utzi* forma ageri zaigu bitan ezik. Halaz ere, bi horietan, *gauren* eta *daus* bezalako ondoan, ez zaigu <*auci*> ageri, <*euci*> baizik, eta baita *deus* eta *gueuren* ere. Zein neurritaraino ziurta daiteke bi dotrina horietan kanpotikako kutsua dagoela?

Zenbait hizkuntzalariri huskeria irudituko zaizkion gora-behera hauek dira dialektologilariaren arreta bereganatzen dutenak, halako alderatzeetarik batzuetan hizkuntz aldaketaren garaia edo eragilea usma baitaiteke. Urrunago ere joan daiteke, konparaziorako argitasuna eta testu zaharrak edukitzera. Gu ez gaude beste hizkuntza askoren egoera berean testuen aintzinasunari dagokionez, baina ezin muzin eginen diegu hizketagai izan dugun Etxenikerena bezalako ekarpeni. Bestalde, makina bat testu eta datu dago oraindik behar bezala ikertu eta orraztu gabe Euskal Dialektologian, horien artean Aezkoakoak, eta horretan dihardu hitzaldi hau eman dizuenak.

Jaun-Andreok, esker mila.